



“LASUNA” batela entrenamenduetarako erabiltzeko baldintzak:

- Talde bakoitzak astean ordu bat erreserbatzeko eskubidea izango du Turismo Bulegora joanez, 943143396 telefonora deituz nahiz turismoa@zumaia.eus helbidera mezu elektronikoa bidaliz. Aste berean beste ordu batean entrenatzeko aukera izango du ordu jakin batean erreserbarik ez badago, baina ezingo da ordu hori aurrez erreserbatu.
- Entrenamenduen orduak zorrozki errespetatu behar dira, gainerako taldeek entrenatzeko denbora bera izan dezaten.
- Talde batek entrenatzeko erreserbatuta duen ordua erabili ezin badu jakinarazi egin beharko du eta aste horretan duen aukera galduko du.
- Batela beti Txomin Agirreko ontzira lekuan utziko da (nahiz eta aurrez entrenatu duen taldeak beste leku batean entregatu denbora aurreratzeko). **Hurrengo taldeari beste leku batean entregatzen bazaio, gogora arazi batela Txomin Agirren lotu behar dela entrenamendua amaitzean.**
- **Batela ontzira lekuaren albo batean ondo lotuta** utziko da, gainerako ontziei trabarik ez egiteko moduan. Jarraian entrenatzeko beste talde bat zain baldin badago ere, batela lotuta uzteko edota hurrengo taldeari nola lotu behar den erakusteko ardura, batela entregatzen duen taldearena izango da.
- **Batelak duen tapoia**, arraunean egiterako orduan jarrita egon beharko du, eta batela ontzira lekuaren lotzean, tapoia kenduta utziko da. Andoni mantenu galdetu.
- **Arraunak Turismo Bulegoan jaso eta entregatuko dira**, salbuespen bakar batekin: aurretik talde bat entrenatzen ari bada edo jarraian entrenatzeko zain badaude. Kasu horretan ontzira lekuaren bertan egin daiteke arraunen trukea baina arraunak Turismo Bulegoan entregatu behar direla gogora arazi behar zaio hurrengo taldeari, jarraian beste talderik ez badago.
- Estropu bat (nahiz beste edozein material) hautsi edo galtzen duenak, Turismo Bulegoan jakinarazi behar du arraunak entregatzerakoan edo ahalik eta lasterren 943143396 telefonora deituz nahiz turismoa@zumaia.eus helbidera mezu elektronikoa bidaliz.

- Turismo Bulegoaren ordutegiz kanpo entrenatzen duten taldeek bulegoa berriro zabaltzen den bezain laster arraunak entregatzeko konpromisoa hartuko dute.
- **Baldintza hauetako bat ez betetzea estropadatik kanpo geratzeko arrazoia izan daiteke.**